

“Kirola euskaraz” berritua

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK berritu egin du www.kirolaeuskaraz.net webgunea. Kirol arloko eragileak sentsibilizatu eta prestatzea, eta euskarazko kirol materiala sortu eta argitaratzea dira Kirola Euskaraz programaren helburuak. Hala, kirola eta euskara uztartzen dituzten jardueren berri emango du webguneak. Halaber, euskararen erabilerari buruzko dokumentuak eta euskaraz sortutako materiala jarriko du erabiltzaileen eskura: fitxa didaktikoak, hiztegiak, argitalpenak, kartelak, errotuluak... Ikastaroak edota ekitaldiak euskaraz antolatu nahi dituztenei lana errazteko, gainera, irakasleen eta kirol ekitaldietan esatari gisa diharduten pertsona eus-

kaldunen datu basea eskaintzen du webguneak.

Euskarastea Zarauzko Putzuzulon

XAKELA gaztetxe asanbladak, *Urola Kostako Hitzak* eta AEK-k antolatu dute Euskarastea, Zarauzko (Gipuzkoa) euskararen gaur egungo egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko. Abenduaren 17tik 20a artean hausnarketarako parada izango da, Xamar, Josu Amezaga eta Iñaki Urruzolaren hitzaldiak izango baitira, eta herriko talde eta eragileek beren kezka eta hausnarketak elkartrukatu dituzte. Abenduaren 21 eta 22an festa giroa nagusituko da; bertsolariak, San Tomas azoka eta kontzertua izango dira Putzuzulo amets fabrikari.

Konstituzioaren itzulpen xeblea

LUISTXO FERNANDEZEK *Ingelesen bilerria* blogean, 1978an, Espainiako Konstituzioa onartu baino lehen, Hego Euskal Herrian banatu zen ale elebiduna ekarri du gogora. Izan ere, Konstituzioaren azken aurreko puntuak bere eduki guztiak derogatzen ditu. Horrela dio esaldiak: “3. disposapen derogatzailea: Era berean derogaturik geratzen dira Konstituzio honatan ezartzen diren disposapen guztiak”. *Senex* aldizkariak ere xeblekeria horren berri ekarri zuela gogorarazi du Fernandezek. Luistxori erantzun dion erabiltzaile batek dioenez, Legebiltzarreko lehen itzultzailea izan zen Josu Oregik esan omen zuen Euskaltzaindiak itzuli zuela Konstituzioa, nahiz eta Euskaltzaindiak berak hori ukatu.

Etorkinak

Ia 110.000 etorkin bizi dira gaur egun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. EAEko biztanleria osoaren %5a dira. Hamarretik zazpi lana dute eta %17,8a langabezia dago. Inmigranteen erdiak 1.000 euroz azpiko diru sarrerak ditu. EAEn bizi diren hiru etorkinetatik bat emakume latinoamerikarra da: lan eremu nagusiak etxe zerbitzua eta zaharren zaintza dira. Hamar etorkinetatik seik hemen geratu nahi du betiko. Gizarteratuak eta errespetatuak sentitzen dira, diskriminatuak baino gehiago. Hori guztia erakutsi du Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak, EAEn egindako lehen makroinkestak. Etorkinek Nafarroan bizi duten egoera ez da oso ezberdina izango.

Menpekoak diren gure heldu eta gaixoen etorkizuna emakume etorkinen eskuetan dago, bereziki. Bertakook lanerako nahi ez ditugun hainbat sektore, hala nola, industriako arlo batzuk, eraikuntza, arrantza, basogintza eta ostalaritza beraien eskuetan dago. Euren lana eta kotizazioa ari dira pentsioen etorkizuna bermatzen. Errealitate horrek elkarrekiko errespetua izatera, etorkinen gizarteratze ahaleginera, atzerritarrak sozialki, lan arloan eta politikoki ez baztertzera eta beste eskubide batzuen artean politikoak –hauteskundeetan parte hartzea, eta abar– aitortzera garamatza. Hemen bizi, lan egin eta ordaintzen badituzte zergak, herritar euskaldunak dira eta beraien eskubide sozial eta politikoak errespetatu behar dira.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Xabier Kintana euskaltzainak *Berrian* esanak:

“Informazioa, kultura eta dibertsioaz gainera, beste zeregin garrantzitsu bat ere badauka EITBk bere gainean: hizkuntzaren modeloa zaindu eta ikus-entzuleentzako eredu imitagarria izatea, eta hori, noski, ez da lortzen etengabeki forma idatzi zuzenak (oraindik ikusle askok nolakoak diren ez dakitenak) baztertu eta *sirimiri*, *earki gatxik* edo *noaoa* bezalako txokokeria aberranteak bultzatuz”.

Josu Amezaga irakasleak *Berrian* esanak: “Azken 25 urtean ETB1en gain utzi da telebistaren bidez euskara biziberritzearen ardura osoa. Euskarazko kanal bakarra izanik, euskaldun guztion gustu eta premiak ase behar izatea gutxi ez (non lortu du, mundu osoan, kanal bakar batek bere komunitate osoa asebetetzea?), eta umeak euskararako irabaztea, erdal etxetara euskararen doinua sartzeko bide izatea (kirolaren bidez), euskarari prestigioa ematea eta gehiago eskatu diogu. Helburu gehiegi jarri zaio honezkero ETB1i, eta guztiei ezin helduta ari da dananik”.

Anton Bilbaok *Tirakan* esanak: “Noizko ETB2-ko edo Radio Euskadi-ko esatari erdaldunentzat euskarazko ize-nak eta leloak aipatu behar dituztenerako jarraibide liburu-a? (...) Radio Euskadiko esatari batzuk dauzkat buruan, eta Euskadi Gazteako *Salgai* saioko esatari bat edo beste ere bai,... are okerragoa dena. (...) Irrati kate erdaldun guztiei adi-adi jarrita ere, ez dut aurkitu horren pareko adibiderik. Esan nahi dut, ez dut aurkitu kate erdaldunetan, Radio Euskadin hasi eta COPEn buka, gaztelaniaz negargarri egiten duen esataririk. Nahita ez, behintzat”.

Pentsamendu askatasunaren ilegalizazioa

EAE-ANV legez kanpo uzteko erabili daitezkeen bide desberdinez luze hitz egin da azken asteetan. Martxoko Espainiako hauteskunde orokorretarako gauzatutzat ematen da jada eta jardun politikoaren –Garzon bidea– edo hauteskundeetan zerrenden inpugnaziotik etorriko ote den eztabaidatzen da batez ere. Gobernuak Estatuko fiskala ere xaxa dezake, auzitegietan ilegalizazio bideari ekiteko, baina aurrez aipatutako lehen bi bideak hobesten ei ditu Espainiako Gobernuak, laburragoak eta samurragoak direlakoan. Hiru hilabete besterik ez da falta Espainiako hauteskunde orokorretarako, eta egoerak asko aldatu behar du aipatzen den eszenatoki hori desegin dadin.

Bake prozesua hondoratu eta ETak bere jardun armatuari ekin ondoren, denbora kontua besterik ez zen bake prozesuaren aurreko egoerara itzultzearena. Dena azkar gertatzen ari da, oso azkar, eraikitzea baino desegitea askoz samurragoa dela argi eta garbi frogatuz.

Juridikoki, ETaren atentatuen gaitzespen ezak babesten ditu ilegalizazioak. Politikoki ENAMeko edoze-lako egiturarekiko partaidetza edo sostengu maila agertzea nahiko da Estatuaren enbata jasotzeko. Estatuari armaz oldartzeak zer dakarren ez da inon zalantzan jartzen, etakideek ere badakite hautuaren prezioa. Erakunde armatuak bere jardun deliktiboa –kode penalean arautua– aurrera eramateko laguntza emateak dakarrena ere ezaguna da eta onartua. Zuzenbide estatuan, dena den, onartezina da adostasun ideologikoa delitu bihurtzea. Edota ideia berdintsuen aldeko borroka molde desberdinak, borroka armatuarekin

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



parekatu eta, beraz, haren moldera zigortzea.

Edonork imagina dezake HB, Batasuna, EHAK edo ANVren boto emailerik gabe ETak jai lukeela. Nagusiki bi arrazoik mantentzen dute ETA bizirik: batetik, borroka armatuan jarduteko prest diren pertsonak dira; bestetik, euskal herritarren ehuneko esanguratsua bat dator haren ideario politikoaren muinarekin eta, hainbat modutan, ideario horren alde egiteko prest agertzen delako. Eta hor dago koska, ETaren ideario politikoarekin ados egon eta ideario politiko horren alde lan –politikoa, soziala, kulturala...– egiteko prestutasuna ezin dela zigortu zuzenbide estatuan. Hori egiteak abertzaletasunaren esparru osoa kriminaliza dezake, PPK bere garaian egindakoak erakusten duen moduan. Eta hartutako jardun moldearekin PSOE ez dago PPren eruditik oso urruti.

Ezker abertzalearen mundu zaba-lean asko dira ados ez datozenak ETaren jardun armatuarekin, baina hori ez da nahiko arrazoi Batasuna edo ANVri botoa ez emateko. Indar handiagoa du ANVren –edo HBren, edo Batasunaren, edo...– erresistentzia jarrerak, presoen munduarekiko lotura sentimentalak, edo besterik gabe bere jarrera politiko tinkoak. Eta, arrazoiak arrazoi, boto-

emaileak eskubidea du ANVren aldeko hautua egiteko, honek zeharka ETA mesedetzen badu ere. Hau da, hain zuzen ere, abertzaletasunaren esparru askotatik, Josu Jon Imazi kritikatzten zitzaiona, honek galdeketa ez egitea proposatzen zuenean, horrek ETari mesede egin diezaiokeelako.

Herritar edo erakunde batek ETaren jarduna ez gaitzesteko eskubidea izan behar du, bai haren jardunarekin ados datorrelako edo bai, mila arrazoi medio, gaitzespenaren joko horretan sartu nahi ez duelako, ETaren jardun armatuaren aurka izanda ere. Arbuio politiko-soziala jaso daiteke horregatik, ez apartheidik, eta are gutxiago zigor administratibo edo penalik. Komisaldegietako torturazailak espetxe zigorra merezi du, torturaztearen alde dagoen herritarrak nahi den arbuio maila mereziko du, baina ez zigor judizialik. Bata zein bestea onartzeak pentsamendu askatasuna erasotzea eta zigortzea dakar, edozein sistema demokratikoren muina alegia. Pentsamendu askatasuna ezin da zigortu, honek maltzurkeriarik handiena badakar ere.

18/98 AUZIKO espetxeratzeak salatzeko ordubeteko lanuzte deialdia dago ostegunerako eta, berriz ere, logikatik at egiten da deialdia. Ez horretarako arrazoi nahikorik ez dagoelako, baizik eta indar bilketaren esparruan berriz ere huts egin delako. Erru kontuetan sakondu barik, argi da berez ere gaitza den erronka are eta zailago dela ELA moduko sindikatu batek deialdiarekin bat egiten ez badu. Jarduera batasuna ezberdintasunean, horra hor arrakastarako bide bakarra.